

Harlax, Behar Bada

Behar bada!

Berriro hemen,
berriz gaueroko martxan,
alde zaharrear,
tabernetan,
jolasean,
aurpegien laberintoan,
edan eta edan,
mozkortuta!

BEHAR BADA! Urteak pasatu dira!
Behar bada ez gara lehenon ginena!
BALANTZAKA! Baina atera beste bat!
Badakizu gaur ez dudala lo egin nahi!

Solasean,
mundua konpondu nahian,
utopietan,
murgilduta,
jolasean,
aurpegien laberintoan,
zure bila,
bero bila!

BEHAR BADA! Noraezean galduta!
Behar bada goiza goizegi iritsi da!
BEGIRADAK! Irrifar bat, keinuren bat!
Badakizu ez dut bakarrik lo egin nahi!